



Oliber Foix

2020/04/18

GAUZEN ZERGATIA...

Zergatik Espainiak mantendu ditu "euskal probintzien" foruak, beste eremu guztietan besterik gabe deuseztatu dituelarik ? (Oin Berriko Dekretuak/Decretos de Nueva Planta 1707-1716)

Zergatik Espainiak "batere ukitu gabe" mantendu ditu "euskal probintziak", beste eremu guztiak besterik gabe probintziak zatitu dituelarik? (División territorial de España en 1833)

Zergatik euskal salbuespen hauek?
Ez da izango Euskaldunak "majoak" zirelako...
Beraz?

Eta hori gertatu baldin bada Espainiak ezin zuelako egin? Legitimitate faltagatik?
Alegia, Espainiak legitimoki bakarrik alda zezakeen benetan "berrea" zena eta ez legitimitate gutxiko zituen jabego eztabaidatuak.
Espainia ez zen "euskal probintzien" jabe naturala eta legitimoa. Gerlaz eta konkistaz hartu zituen eta beste norbaitek mantentzen zituen jabetza pretendizioak lurralde hauei buruz: "Frantziako eta Nafarroako" erregea alegia, konkistak Nafarroako erregeen kalterako egin zirelako.

Ulertzeko gauza bera gertatzen da oraindik Ceuta eta Melillarekin (Espainiak kontutan hartu behar du ezinbestean Marokoko iritzia) edo Gibraltarrekin (Espainia beti kexatzen da UK-ko erabakiekin)

"Euskal lurraldeen" inguruko "status quo" egoera mantentzeko ezinbesteko bi baldintza bete behar zituen Espainiak, biak lotuak:
- ez ematea "casus belli" aukerarik Frantziako eta Nafarroako erregeari.
- ez ematea kexatzeko aukerarik "euskaldunei", ekiditzeko hauek laguntza eskatu dezaten beste jabe legitimoari.
Ondorioz hoberena zen ezer ez aldatzea lurralde hauetan...

Bainan testuinguru berri bat sortuko da XIX. mendean zehar:

FRANTZIA:

- Frantziak, iraultzen bidez, hainbat erregimen aldaketak izango ditu (1789, 1792, 1804, 1814, 1815, 1830, 1848, 1852, 1870). Dinastia legitimoa (Nafarroako erregeena) kanporatua dago 1830ean, eta huts egiten du 1870an poterera itzultzeko.
- Frantziako erregimen berriek abandonatzen dute Nafarroako errege titulua 1830tik aurrera...
- Frantziako erregimen berriak (Napoleon III) Baionako ituna izenpetzen du Espainiarekin 1856an, besteak beste "bi Nafarroen" arteko muga ofizializatzeko. Ondorioz Espainia bere zatiaren jabe legitimoa bilakatzen da.

EUSKAL HERRIA

- Paraleloki hainbat gerla karlistak gertatzen dira "euskal lurretan" (1833-1839 eta 1872-1876) eta modu ohargarrian ez zaie bururatzen Euskaldunei independentzia planteatzea. Horretarako bazituzten Hego Amerikako independentzien mugimenduen aurrekariak (1810-1825) edo Europakoak (Grezia 1821, Belgika 1830, Hungaria 1867...).
- Esate baterako Nafarroako erregeordetza da Espainiako Inperioaren bakarra independentizatzen ez dena garai haietan...

Testuinguru berria zehaztuta, beraz, Espainiak ez dauka gehiago legitimitate arazorik Euskaldunen lurraldeak nahi duen bezala kudeatzeko. Hasiko du Nafarroaren erresuma egoera fiktizioa desegiten (1841) eta azken euskal foruak deuseztatzen (1876)...

Euskaldunak, pixkak geldoak nazioarteko testuingurua ulertzeko, urte batzu berantago, abertzale moduan, hasiko dira aldarrikatzen... foruen berrezartea!! Espainiako legitimitatea kolokan jarri gabe noski!!

Gaur egungoaren zergatia nunbait...

